

Batzar Orokorra, abenduaren 17an

Oroitarazten dizuegu datorren ostegunean, abenduak 17, Zurriola Ikastola IKEK bere Ohiko Batzar Orokorra egingo duela Hurrako areto nagusian arratsaldeko 19:00etan hasita. Aurtengo egoera bereziak hala eskaturik, aurrez aurreko asistentzia konfirmatu behar dela kontuan har ezazue, aurreko astean e-postaz bidalitako galdetegia betez. Aurten bereziki, boto ordezkatuaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Beraz, bilerara bertaraten ez bazarete, mesedez, zuen ordezkapen kupoia beteta Villa Soroa zein Hurrako idazkaritzetara ekar dezazuen erregutzen dizuegu.



Aurtengo festak

Aurten ezingo gara auzora atera urtero ospatzen ditugun jaiak ospatzera, baina kulturarekin dugun konpromisoari eutsiz, beste modu batera bada ere Gabonak, Danborrada, Kaldereroak eta Euskal Inauteriak ospatzen jarraituko dugu. Ikastola barruan egingo ditugu festa hauek, eta, tamalez, gurasoek ezingo duzue parte hartu eta ezingo zarete ikustera etorri, baina emango dizuegu egingo dugunaren berri.

[Zirkularra.](#)



Teknologia berriei buruzko txostena

Aurtengo ikasturtean ere teknologia berrien inguruko prestakuntza-saioak izango ditugu ikasle eta gurasoekin. "Orain Prebentzioa" elkartearen eskutik jasoko ditugu saio hauek, eta LH 6ko ikasle eta gurasoei eta DBH 2ko ikasleei zuzenduta egongo dira. Urtarrilean hitzaldi horietan parte hartzeko interesa duzuenoi izena emateko eskatuko dizuegu, segurtasun-neurriak bete ahal izateko. Hala ere, adin guztietarako egokia den txosten interesgarri bat helarazi digute, eta Gabonetako oporrak egokiak iruditu zaizkigu gaiaren inguruko informazioa irakurri eta zuen seme-alabekin landu dezazuen. [Txostena.](#)



Gelak seinalez bete ditugu

LH 4ko ikasleok gogo biziz ekin diogu inguruneke "KONTUZI OINEZKOAK BIDEAN" gaiari. Bertan, beste gauza askoren artean, bide hezkuntza aritu gara lantzen, eta unitatea amaitzen ari garelarik, trafiko seinalez beteriko herri zoragarriak erakitzen aritu gara, horiekin jolastu eta ikasi ahal izateko.



OHARRAK / AGENDA:

- **HH2-BATX2:** Baserritarrez jantzita etortzeko deialdia, abenduak 18.
- **HH5:** Basoeskola. Goizpasa. HH5C-D (Amaia-Ixiar) abenduak 15. HH5A-B (Ainere-Miren) abenduak 16.
- **LH6:** Bertso emanaldiak. 15:00etan frontoian, eguraldiak baimentzen badu. Abenduak 15, 16 eta 17.
- **Gabonetako doinuak:** [Kantak.](#)
- **Gabonak zuretzat 2020:** [Informazioa.](#) [Izena ematea.](#)

